

# Jenero kontzeptuaren inguruko hausnarketak

Mila Amurrio  
EHUko soziologia irakaslea

Azken hamar urte hauetan, *jenero* hitza gero eta erabiliagoa izan da literatura soziologikoan. Hasieran, soziologian eta askoz lehenago beste jakintza-arlo batzuetan, esaterako antropologian, *jeneroa* 'emakume' kategoria ordezkatzerantz zetorren aldaketa teoriko handirik sortu gabe.

Lehen, *Emakumeen Ikerketak (Women's studies)* izendapenarekin ezagutzen genuen *sexu-ezberdintasun soziala*-z arduratzen zen arlo teorikoa; egun *jenero* edota *Jenero Soziologia*-z ari gara gauza bera adierazteko, nahiz eta aurreko izendapena erabat bazterturik ez geratu. Baina hori bai, desberdintasunari buruzko arlo teoriko hau soziologian nagusi izan diren esparru teorikoetatik ondo bereiztua eta aldentua dago, *jenero* eta *lan-banaketa sexuala* bezalako kontzeptuek gizarte-egituraren arloarekin zerikusirik ez balute bezala.

For the last years, the word *gender* has been more and more used in sociological literature. Formerly in other fields of knowledge, such as anthropology, and then in sociology, *gender* has come to substitute the *woman* category without producing any important theoretical change.

Before now, the theoretical field on *social sexual inequality* was known as *Women's studies*; today, we refer to it as *gender* or *Gender Sociology*, even if the first designation has not been put away completely. Anyway, this theoretical field on inequality is very well separated and moved away from the most important theoretical fields in sociology, as if the concepts like *gender* and *sexual work division* had no relation with social structure's field.

Azken hogei urte hauetan, *jenero* hitza, Giza Zientzien eguneroko hizkeraren elementu bilakatu da. Honen arrazoiak ditugu, mugimendu feminista eta berarekin batera emakumeen menpekotasun-egoera sistematiko eta unibertsala hobeto ulertzeko eman diren ahalegin intelektualak. Baina nahiz eta hitza oso zabaldua eta erabilia izan, bere esanahiaz ez dago ulerkuntza amankomunik, ezta ikertzaile feministen artean ere.

Tresneria teorikoa eraikitzean oso argi izan behar dugu zertarako nahi ditugun bitarteko horiek. Lan anitzetan aipatua izaten da helburu hori nik arestian egin dudan bezalaxe, baina baita ahaztua ere kontzeptu teorikoak ikerketetan erabiltzean. Orain arte lortu izan dugun gauza bakarra emakumeen menpekotasun-egoera unibertsala deskribatzea eta egiaztatzea da, ezberdintasun eta menpekotasun horren sorreraren ulerkuntzan aurrerapen gutxi lortuz.

Aitortu beharra dago, ulerkuntza amankomun bat lortzea ez dela batere erraza arlo teoriko honetan, ez eta beste hainbeste arlo teorikotan ere. Baina iluntasun honetan argi-izpiak ere badira. Hauen adibideak ditugu, nire iritziz, Harriet Bradley-en lana (1989) eta Joan Ackerrek Symposium batean aurkeztutako artikulua (1992).

Lehenengoaren lanean sexuan oinarrituriko ezberdintasunak azaltzeko egon diren ekarpen teorikoen jorraketa interesgarria aurkitzen dugu. Bigarrenean jenero kontzeptuaren erabileraz ari da idazlea, hain zuzen ere erabilera honen historia laburra egiten du, egon diren eztabaidak jakintzat emanik. Bai bide batetik bai

bestetik idazle biak ondorio berberera heldu dira: Jeneroa, beste batzuekin batera, errealtate sozialaren eraikuntzan printzipio antolatzailea dugu.

Baina ezagut ditzagun ondorio horretara ailegatzeko erabili izan dituzten argudio historiko eta soziologikoak.

Soziologian, feministak jeneroaren ikuskera batekin hasi ziren, poliki-poliki hedatu eta aldatu egin zen, ikuskera berri bat sortuz, azken honek ikuskera zaharra erabat ordezkatu ez duen arren. Acker-en iritziz, soziologiaren barnean jeneroaren bi ikuskera baino ez daudela argudiatzea, dauden ikuskeren arteko gainezarpina eta jarrera ezberdin anitzen arteko eztabaida konplexua gehiegi erraztea litzateke.

Hala eta guztiz ere, jarrera horiek guztiak bitan laburtzea lagungarria dela uste du gure gizartearen instituzio-prozesu nagusiei buruzko pentsakera berria erdiets dezagun.

Hasierako erabileran, *jenero* hitza, *sexu* edota *emakume* hitzaren sinonimo legez ulertua izan zen; jeneroaren ikerketa, emakumearen, errol sexualaren edota bien ikerketa da. Jeneroa, ikuskera honetan, arlo edo esparru mugatua baino ez da, soziologiaren kezka nagusietatik oso urrun dagoena.

Erabilera berrian, jeneroa, kultur interpretazio eta giza egituraren oinarritzko printzipio bezala izan da teorizatua.

Jakintza-arlo onartu baten barneko berezitasuna izan beharrean, jeneroa menerapen eta ezberdintasunaren araua da, azken hauek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunetan giza prozesu anitzen barne daudelarik.

Jeneroaren inguruko teorizatze-modu honek existitzen diren paradigmak kritikatu eta aldatu egiten ditu honako hau esanez: emakumearen eta jeneroaren errolak ezin zaizkie existitzen diren teoriari soilik erantsi, azken hauek jeneroaz ezer ez esatean erratuak baitaude.

Jeneroari buruzko ikuspegi hau garatzen ari den teoria eta metodologia feministaren atal bat da; hau da, jeneroaren sortze-prozesua oraindik amaitzeke dago, izan ere, gai honen inguruan argitaratzen ari den literatura soziologiko berria gero eta maizago aurkitzen baititugu ikuspegi honen aldeko ahalegin teorikoak.

Azken planteamendu honi jarraituz, jeneroaren azken definizio honen erabileratik errealitate sozial osoa jenerizatua dagoela, hots, giza instituzioak jenerizatuak daudela esatera hel gaitzke, Ackerrek dioen bezala.

Jeneroaren hasierako erabilerak, sexuen arteko ezberdintasun biologikoen aurrean, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunen izaera soziala azpimarratzen zuen. Sexua natura zen eta jeneroa haziera.

Argigarriak ditugu, ildo beretik, Popenoek (1989) emandako definizioak; oraindik emakumezko edo gizonetzko izatearen esperientziak baditu bere baitan ezaugarri biologikoen gain beste ezaugarri asko. Sexua –emakumezkoak eta gizonetzkoak elkarren artean ezberdintzeko ezaugarri biologikoa–, eta jeneroa –emakumetasun eta gizontasunarekin erlazionaturik dagoen ezaugarri sozial eta psikologikoa–, desberdintzea garrantzitsua da.

Sexua ezaugarri biologiko bezala populazioko partaide guztien ezau-

garri aldaezina dugu. Jeneroa, aldiz, sozialki eta kulturalki mugaturik dagoenez gero, aldagarria da. Bi sexu baino ez daude baina jenero kontzeptu asko daude; jeneroak emakumetasun-eta gizontasun-ideia sozialen isladak dira, historian zehar aldaketa ezberdinak jasan dituztenak.

Gizarteak bere jenero kontzeptuak plazaratzen ditu sexu bakoitzari egokitzen dizkion errol sozialen bidez. Birgogoratzearen, errol kontzeptua, bere talde edo gizartean duen kokapenaren arabera, pertsona batengandik espero den portaera dela esan dezakegu. Horrela jenero errola emakume edo gizona izatearekin erlazionaturik dagoen errol soziala da.

Baina aurrerago ikusiko dugunez, Ackerren azalpenean agerian geratzen den bezala, sexu eta jenero kontzeptuen arteko harremana korapilotsua da.

Hasierako kontzeptuaren historiaren ildotik, jeneroak sexuak baino askoz hobeto azaltzen zuenez errol eta identitateen eraikuntza soziala, eta hauek emakume eta gizonetan banatzen dituztenez gizarteak, jenero errolek sexu errola –tradizio funtzionalistan erabilitako kontzeptuak– ordezkatzeko zituzten. Sexua eta jeneroa elkarrekin harremanean zeuden baina bereizgarriak ziren. Jeneroa soziala zen, sexuak aldiz, aldaezinak diren ezberdintasun fisikoak ordezkatzeko zituen. Sexua eta jeneroaren artean lotura kausala zegoen inplizituki.

Sexuak ar eta emeen gorputzen arteko ezberdintasunak adierazten ditu; ezberdintasun hauek ar eta eme kategoriak definitzen dituzte eta gizabanakoak talde batean edo bes-

tean daudela adierazteko balio dute.

Sexuen araberako kategoriak naturalak bezala hartuak izan arren (jeneroaren eskusartze sozialaren aurretik), ezaugarri fisiko batzuen identifikazioa gizabanakoak sailkatzeko oinarri bezala hartzea eta kategoria horiek gizabanakoei egokitzea, prozesu sozial ebaluatzaile bat da.

Eguneroko bizitzan, talde edo kategoriatan baten egokiera, ustezko ezberdintasun biologikoen arabera egin ohi da, eta azken hauek janzkera eta portaera behagarrian oinarrituak daude. Horrela, jenero-ezberdintasunari buruzko ulerkuntza soziala sexu-sailkapenean sartzen da. Sexuak jenerotik hartzen du bere esanahia: sexua jeneroaren baitan sartzen da. Honek ez du esan nahi sexua, sexualitatea eta gorputza garrantzitsuak ez direnik, baizik eta hauek praktika eta prozesu sozialei esker bizi direla, ulergarri bihurtzen direla. Jeneroaren arabera eraikiak izan dira eta aldi berean jeneroa eraikitzen laguntzen dute.

Jeneroaren kontzeptua (sexuarena) gizabanakoen ezaugarri bezala edota kategoriatan sozial bezala, hau da, jenero-errol edota jenero-identitatea, oso modu errazean moldatua izan da ikerketa-modu tradizionalak. Honen arabera teoriak, aldagaien arteko harremanak aztertuz gaitzesten edo onesten dira. Horrela, jeneroa aldagai independente gisa erabil daiteke.

Esaterako: ikertzaileek soldaten ezarpena aztertzen dute langileen jeneroa gehituz, edota emeen portzentzia lan ezberdinetan...

Tradizio honetako ikerkuntza baliagarria da dokumentazio gisa.

Baina behar-beharrezkoa da jeneroa kategoriatan bezala, jenero-errol edota jeneroa identitate bezala sakonki aztertzea, jenero-ezberdintasunak eta emakumeen desabantailak nola sortzen diren ulertu ahal izateko. Azken honek baditu ondorio metodologikoak Ackerrentzat: praktika eta prozesu zehatz batzuk ulertu ahal izateko premiazkoak dira ikerketa koalitatibo eta historikoak.

Beste konplexutasunek lagundu izan dute jeneroaren ulerkuntza hau sortzen. Ikerketa historikoek eta kultura anitzekoek eta emakume beltzen lanek ere, kritikatu izan dute klase ertaineko feminista "zurien" lanen joera unibertsalista, emakumeen esperientzia eta jenero-harremanen aniztasuna eta espezifikotasuna azpimarratuz; eta horrez gain, errol- eta identitate-ikuskerek emakume-gutxiengo baten esperientziak azaltzeko dituzten mugak adierazi dituzte. Esaterako, Stacey eta Thorneren iritzian, boterea eta menpekotasunari buruzko arazoak ezin dira modu egokian jorratu sexu-errol kontzeptua erabiliz.

Idazle hauen ustetan, Familiaren Soziologia Funtzionalistan, Parsonek, familia nuklear tradizionalaren baitan, honako jenero-banaketa hau ezarri zuen: errol adierazkorak (emakumezkoak) eta errol instrumentalak (gizonezkoak).

Parsonek, familia eta jeneroari buruz egindako azterketan gizareratze-funtzioa azpimarratzen zuen, ordena sozialaren funtzionamendu harmonia-tsarako funtsezkotzat joz.

Auzi hau jorrazteko modu honek, jenero-soziologiarengan eragin handia izan du, oinarritzko kontzeptu batzuen

garapena bultzatuz, –esaterako, sexu-errolen hizkera–, sinesmenak sortuz –jeneroa familiarentzat beste instituzioentzat baino askoz ere garrantzitsuagoa delako–, eta jeneroaren gaiak ugalketa eta mantenimendu sozialarekin loturik daudela baieztatuz.

Egoera honen aurrean, Stacey eta Thornek errol kontzeptuaren inguruan egindako kritika, jauzi koalitatibo gisa ikusi izan da jenero-soziologiaren historia laburrean.

Egungo ikertzaile feministek laster ikusi dituzte jeneroa ulertzeko funtzionalismoak dituen eraginak eta mugak.

Errol kontzeptuak, egitura sozialaren bano gizabanakoengan jartzen du arreta, horrela, emakumezko-errola eta gizonezko-errola osagarriak bailiran ikusiz; aldi berean, despolitizatuak dira. Errol kontzeptuak esperientzia bere testuinguru historiko eta politikotik bereizten du; boterea eta gatazkari buruzko kontuak ukatu egiten ditu (Stacey & Thorne, 1985: 307).

Arestian aipaturiko konplexutasunen artean, gizarte-klasea ere aipatu izan dugu. Dударik ez, klase-esperientziak ere lagundu izan duela bai emakumeen arteko harremanak bai emakume eta gizonen arteko harremanak bereizten, jeneroaren lan-banaketak klase-prozesuari eragiten diolarik.

Zapalkuntza-modu anitzen arazo teorikoa gairditzeko egin berri diren ahaleginek menpekotasun-dimentsio ezberdinak izan dituzte kontuan,

arraza, klasea, jeneroa, etnia, portaera sexuala, elbarritasuna eta adina, alegia. Menpekotasun-dimentsio edo moduen ideiak ezberdintasunen konplexutasuna adierazten du baina ez du lortzen gizabanakoaren esperientzia edo prozesu soziala ulergarriagoa egingo lukeen eta modu horiek biltzen dituen azalpen koherente bat.

Klase-harremanek ez dute jenero-harremanaren moduan funtzionatzen; arraza-harremanak ere beste gauza bat dira.

Konplexutasun horien baitan jeneroak duen indarrak jabetzeko modu bat bilatu beharko genuke.

Feministek egindako lekuan lekuko ikerlanek beste konplexutasun batzuk gehitu dituzte. 70.eko hamarkadan ekoizturiko literaturak, jenero-sailkapenak eta botere-moduak toki guztietan existitzen direla erakusten du.

Egoera horri aurre egiteko aproposak ditugu Stacey eta Thornen hitzak: «...teoria bat behar dugu atala osotasunean kokatzen lagun diezagun» (Stacey & Thorne, 1985: 310).

Sortzen ari den kontzeptualizazioan, jeneroak –emakume eta gizonen arteko ezberdintasun-zentzuan– giza iharduerak, praktikak eta gizarte-egituren egungo ordena baimentzen du. Iharduera eta praktika hauek beti izaten dute esanahi sinbolikoa, eta Scott-ek(1986)<sup>1</sup> esaten zuenez, jeneroa botere-sinboloa da. Hurbilketa

---

1. Idazle honen definizioa bi proposamenez osatua dago: lehenik jeneroa, sexuen desberdintasunetan oinarritutako giza harremanen osagaia da; bigarrenik jeneroa botere-harreman esanguratsuen era primarioa da. Jeneroak elkarrekin erlazionaturiko lau osagai ditu: 1) Sinboloak (idazleak Eva eta Maria aipatzen ditu emakumeen sinbolo bezala Mendebaldeko kristau-tradizioan). 2) Kontzeptu arautuak, hots sinboloen esanahien interpretazioak (adibidez aipatutako sinboloen interpretazioak kontzeptu erlijiosoen bidez egiten dira). 3) Giza erakundeekiko erreferentziak eta ideia politikoak (hezkuntza-sistema, familia, lan-merkatua ...). 4) Identitate subjektiboa.

honetan, jeneroa prozesua da, ez gizabanakoen ezaugarria, nahiz eta, jakina, gizabanakoen egokipena jenero-kategorietara prozesu horren ardatza izan. Jeneroa ez da harreman-sare baten baitan existitzen, non beste harreman-motak ez diren kontuan hartzen, –esaterako arraza edo klasea (etnia, nazioa)–, baizik eta arraza eta klasea (etnia, nazioa, eta beste menpekotasun- eta desberdintasun-mugak) eraikitzen dituzten prozesuen atal bezala; sexualitatearen eta sexuaren esanahien sorkuntza-prozesu horietan erabat inplikaturik dago.

Ondorio berberera ailegatzen da Bradley (1989), eztabaida historiko eta soziologikoak jorratu ondoren. Eztabaida soziologikoaren lehenengo urratsa ondorengoa genuke: jenero-bereizketa azaltzen duten kontzeptu soziologikoen erabilera, beste eztabaida zabal batean kokatu behar dela. Eztabaida hau, honako galderetan isladatzen da: Zein da, sexu-ezberdintasunaren jatorrizko arrazoia, Kapitalismoa ala Patriarkadoa? Patriarkadoa, kontzeptu soziologiko baliagarri bezala har al daiteke?

Aurreko galderak argitzeko asmotan teorilari feminista anitzen (marxistak: Beechey, Hartmann eta Delphy; erradikalak: Firestone, Mitchell, Harding, Coward; beste batzuk: Barrett, Walby, Rubin, Ehrenreich eta English) ekarpenak aztertzen eta kritikatzten ditu.

Kapitalismo versus Patriarkadoaren gaia ez ezik “Neurri ertaineko teoriak” ere aztertu izan ditu: jenero-ikerketarako hurbilketa etnometodologikoa erabiltzen duten idazleen ekarpenak, esaterako Stanley and Wine-enak. Edota, Elshtainen hurbilketa postmodernista.

Azken galderari dagokiolarik, hau da, ea patriarkadoa kontzeptu baliagarria izan daitekeen azterketa soziologikorako, Hartmann eta Walby-k eginiko hausnarketak hoberenetarikoak bezala kontsideratzen ditu Bradleyk; alabaina, eta ondo planteatua egon arren, patriarkadoaren kontzeptuari erratua deritzo, unibertsalismo historikoan jausteko arriskua ikusten duelako.

Bradleyk aipaturiko arriskuarekin bat nator, baina, aldi berean, aitortu beharra dago Walby-k idatzitako azken lanean arrisku hori saihesteko egiten duen ahalegina.

Sylvia Walby-k (1989), analisi dual baten beharra aldarrikatzen du. Berarentzat patriarkadoa ez da inoiz ekoizpen-modu bakarra, beste ekoizpen-modu bati loturik agertzen baita beti. Horretaz gain, patriarkado-era ezberdinak aztertu beharra ere ikusten du. Bere aburuz, gizarte kapitalistetan giltzarri diren harreman patriarkalak, etxeko lanean, ordaindua den lanean, estatuan, gizonezkoen bortizkerian, sexualitatean eta kultur instituzioetan, alegia, erlijioan, komunikabideetan eta hezkuntzan, aurki ditzakegu.

Azken ahalegin hau, gizartea bere osotasunean kontuan hartzen saiatzen da, baina oraindik hainbat ikertzaile-arentzat mugaturik suertatzen da, instituzio horietan guztietan ez diolako ekiten harreman patriarkalen sorkuntza eta bersorkuntza azaltzeari.

Dena dela, ekarpen hau ezin baztertu arren, interes handiagoko ekarpenentzat jotzen ditugu lan honetan zehar azaltzen ari garenak. Horrela, Bradleyren azterketari jarraituz, berak lan horren eta beste askoren jorraketa

eta kritika egin ondoren proposatzen digun irtenbidea ikusiko dugu.

Irtenbidearen jatorria, *sistema* kontzeptu soziologikoaren inguruko arazoaren erroa ikustean datza; eta honako hau iradokitzen du: Egiturazko Teoria modu bat hartzea, sistema-kontzeptu hori baztertzeko edo behintzat beste era batera ulertzen duena. Bide hori urratzeko, bere aburuz, Egitura Soziala, elkarloturiko harremanen sistema-mundu bezala (klasea, jeneroa, etnizitatea, politika, kultura) ulertu beharko genuke eta hauek beraien garapen historikoaren testuinguruan aztertu beharko genituzke.

Harreman-talde bakoitza bakarka teorizatua izan daiteke, nahiz eta bakoitzaren ulerkuntza osoa ezin den lortu besteekin duten elkarrekintza/ /elkar-harremana kontuan hartzen ez bada, edo bere testuinguru historikoan kokatzen ez bada.

Honek, gure azalpenak mugatu eta zatituak direla esan nahi du, baina hala ere, horrelakoak izan arren, gizartea nola alda daiteken pentsatzen hasteko oinarri sendoak dira.

Hala ere, Bradleyk, aurreko proposamenarekin ez du patriarkadoarekiko kezka eta honen erabilera baztertu nahi. Are gehiago, emakumeen historia eta soziologia berrian kontzeptu giltza bilakatu dela onartzen du: «...egitez nahitaezko bihurtu da, 'sistema sexu-jenero' edo beste terminoek ez duten botere sinboliko eta politikoa baitauka» (Bradley, 1989: 56).

Idazle biok jeneroaren inguruko teorizatze-modu bera proposatzen badute ere, bide ezberdinei jarraituz, teorizatze-iharduera horretan Ackerrek beste pausu bat ematen du Bradleyk

aipaturiko gizarte-aldaketa horri ekiteko bidean; pausu horren adierazle Instituzio jenerizatuen kontzeptuaren proposamena dugu.

*Instituzio jenerizatuak* hitzen esanahia honela azal genezake: jeneroa, biritza sozialean ematen diren prozesu, ekite, irudi, ideologia, eta botere-banaketen baitan dagoela esanez.

Azken finean gure idazlea kezkatzen duena hauxe da: nola aztertu/ /ikertu jeneroaren indarra osotasun sozialean; eta horretarako instituzio sozialen azterketari ekiten dio.

Bere abiapuntua errealitatea egiaztatzea da, hots, instituzioen definizioak emakumeen presentzia eza erakusten duela agerian uztea. Instituzio bakarra dago non emakumeak, menpekoa izan arren, paper garrantzitsua eta mugatua jokatzen duen. Instituzio hori Familia da. Nahiz eta emakumeek bultzaturiko aldaketa ugari hainbat instituzioren baitan gorpuztu, gizonek giltzarri diren instituzioak menperatzen jarraitzen dute.

Ackerren aburuz, oinarrizko sailkapen hau kontzeptualizatua izan daiteke, *ekoizpena* eta *ugalketaren* arteko ezberdintasuna bezala, zeina jenero antolaketa bat den. Idazleak, hitz hauek, lagunen gizarte kapitalisten eguneroko eta belaunaldien arteko ugalketa eta ondasunen ekoizpenaren arteko banaketa adierazteko erabiltzen ditu. Gizarte industrial kapitalistetan ekoizpena ugalketaren gainetik dago. Finantzak eta industria funtsezko eta ongizate-iturri bezala ikusten dira, haurrak, agureak eta atsoak zaintzea eta hezkuntza, bigarren mailakotzat jotzen diren bitartean. Nahiz eta familia idealizatua izan, ugalketa,

emakumeen ardurapeko manupea, ikusi ere ez da egiten; gaizki ibiltzen hasi arte azpibalaratua izaten da. Ugalketa funtsezkoa baita beste instituzio guztiek funtziona dezaten.

Ackerren ildoan, ugalketaren eta ekoizpenaren arteko banaketak gizar-teen azpiegitura jenerizatua osatzen du. Eta azpiegitura jenerizatu honen sorkuntza eta birsorkuntza ikertzeko, antolakuntza-iharduerei heldu behar diegu.

Mota ezberdineko iharduera eta prozesuak, bizitza sozialean elkarloturiko osagaiak izan arren analitikoki bereiz daitezke. Batzuk nabarmen eta irekiak dira; beste batzuk sakonki elkarloturik daude eta ikustezinak dira.

1.- Prozesu jenerizatuaren zerrenda batean, arraza eta klasea (etnia eta beste menpekotasun- eta desberdintasun-mugak) eraikitzen dituzten prozesuak lirateke lehenengoak.

2.- Instituzioek zilegitu, azaldu eta justifikatu egiten dituzten irudi, sinbolo eta ideologiaren eraikuntza gendek, bigarren prozesu jenerizatua.

3.- Hirugarren ikuspegi analitikoaren elkarrekintza-prozesuetan oinarriturik dago; gizabanako eta taldeen arteko elkarrekintzaren izaera, instituzioak funtziona dezaten. Hemen, jendeak jeneroa birsortzen du: jeneroa egiten dute instituzioaren lan arrunta eginez.

4.- Laugarrena, barne-prozesuak dira, zeinetan gizabanakoak gizakien eraikuntzan aritzen diren, instituzioak jenerizatuz (gizarteratze-prozesuak).

Teoria mailan proposaturiko Instituzio Jenerizatuaren tresna Bradleyk egindako planteamendu teorikoan

modu esplizitu eta hain sistematikoan ez badago ere, bere lekuan lekuko ikerlanean dago. Jenero-bereizketa lan-munduan azaltzeko burutzen duen saioan, historikoki eta hasieratik lantokiak jenerizatuak izan direla onartzen duen hurbilketa erradikalago baten beharra azpimarratzen du. Idazle honen iritziz, gai honi buruz azalpen osoagoa lortzea posible da, garapen industrialaren hasieratik lan-prozesua ez dela izan soilik kapitalista, baizik eta jenerizatua ere izan dela onartzen baldin badugu. Ekoizpen-prozesuan teknika berriak sartu eta berrantolatu zituzten kapitalista berauek, sozialki gizon eta emakumeei, langile bezala, atxikitzen zaizkien ezaugarriak erabiliz sortu zituzten gizonen eta emakumeen lanbideak: gizonei trebetasunak eta teknologian aditua izatea atxikitzen zaie; emakumeei merkea eta moldagarria izatea.

Beraz, instituzio ekonomikoaren izaera hasieratik jenerizatua dagoela esatean Ackerrek urraturiko bidetik doa Bradleyren lana.

Instituzioak jenerizatuak bezala ulertzeak ikuskera kritikoa ematen digu soziologiarekiko, eta hemen funtsezko arazoa ez litzateke emakumeak zergatik baztertu diren, baizik eta jeneroak zenbateraino osatzen duen instituzio-egitura osoa eta instituzio-esparru bakoitzaren izaera. Eta ildo beretik, ondorengo galdera planteia daiteke: Egon liteke *status quo* militar bat, Estatu bat guk ezagutzen dugun moduan, edota ekonomia kapitalista bat, jeneroa antolakuntza printzipio bat izango ez balitz?

Lan honen hasieran, sexu eta jeneroaren arabeko desberdintasunen sorkuntza eta birsorkuntza ulertu ahal izateko tresna teorikoa eraikitzeko

beharra aipatzen genuen, eta teoria horren izaera, Stacey eta Thornen hitzak segituz, ondorengo da: teoria bat behar dugu, atala osotasunean kokatzen lagun diezagun.

Bide honen lehenengo pausuak ematen ari gara, izkribu honetan agertzen diren idazle guztiekin bat etorriko ondokoa esatean:

Jeneroa, errealitate sozialaren eraikuntzan printzipio antolatzaile bat da, beste batzuekin batera; ez da errealitate horren ikerketan erabiltzen dugun aldagai bat soilik.

Errealitate sozialaren printzipio antolatzaile bat den neurrian, beste batzuekin batera teorizatua izan behar du, bere osotasunean uler dezagun.

Aitortu beharra dago, 70.eko eta 80.eko hamarkadetako ikerketa feministek horrela frogatu baitute, jenero-sailkapenak eta botere-moduak toki guztietan existitzen dira, hau da, gizarte guztien osotasunean aurki ditzakegu. Beraz, instituzio jenerizatuak hitz egiten has gaitezen.

Instituzio jenerizatuaren sortze- eta bersortze-prozesuak ulertzeari ekin diezaiogun J. Ackerrek proposaturiko ildotik, hau da, honako prozesu hauek aztertuz:

a) Arraza, gizarte-klase, etnia eta beste menpekotasun- eta desberdintasun-mugak eraikitzen dituzten prozesu jenerizatuak.

b) Instituzio jenerizatuak lejitimatu, azaldu eta justifikatu egiten dituzten irudi, sinbolo eta ideologiaren eraikuntza.

c) Elkarrekintza prozesuak zeinetan

gizakiok jeneroa sortu eta bersortu egiten dugun.

d) Gizarteratze-prozesuak.

Aurreko guztiaren azterketari ekiteko, ezin dugu ahantzi, ikerketa koantitatiboaz gain, ikerketa koalitatibo eta historikoak premiazkoak direla praktika eta prozesu zehatz batzuk ulertu ahal izateko.

Bide horretatik lorturiko ulerkuntzan oinarriturik baliteke gizartea aldatzeko teoria bat ere urratzen hastea. Teoria feminista bat, zeinak J. Chafetzen hitzetan honelakoa izan beharko luke: «...teoria bat feminista da, emakumeen esperientzia baloratzen ez duen *status quo*, aldarazteko erabil daitekeenean».

Teoria feminista baten beharrezko hiru osagaiak ondokoak dira:

1.- Jeneroak teoriaren oinarritzko ikuspegi edota garrantzizko ardatza izan behar du, teoria feminista, giza-harreman, instituzio, eta prozesuen izaera jenerizatua ulertzen saiatzea baita azken finean.

2.- Harreman jenerizatuak arazo bezala ikusten dira, hau da, giza ezberdintasunak eta kontraesanen arteko harreman motak bilatu behar ditu.

Azken bide honi ekiteko ikusitako ekarpenak interesgarriak dira oso eta, gainera, nire uste apalean saio baliagarrienak ere badira, bene-benetan gure helburua arestian aipaturikoa baldin bada: alegia, gizartea aldatzeko teoria bat eraikitzea.

## Bibliografía

- Acker, J. (1992): "Gendered Institutions", *A Journal of reviews: Contemporary Sociology*, 565-568.
- Amelang, J. eta Nash, M. (arg.): *Historia y Género: Las mujeres en la Europa Moderna y Contemporánea*, Alfons el Magnanim, Balentzia.
- Bradley, H. (1989): *Men's work, Women's work*, Polity Press, Cambridge.
- Popenoe, D. (1989): *Sociology*, Prentice Hall, New Jersey.
- Stacey J., Thorne, B. (1985): "The missing Feminist Revolution in Sociology", *Social Problems* 32, 4, 307.
- Scott, J. (1990): *El Género: una categoría útil para el análisis histórico*.
- Walby, S. (1989): "Theorising Patriarchy", *Sociology* 23, 2, 213-234.
- Wallace, R. A. (1990): *Feminism and Sociological Theory*, Sage publications, Londres.